

PRESIDENTEAREN 83-09 ZK.DUN DEKRETUA

**SARA CHAMIZO DIEZ ANDREAK, AMOREBIETA-ETXANOKO
AMETX ERAKUNDE AUTONOMOAREN PRESIDENTEA DEN ALDETIK,**

KONTUAN IZANIK Amorebieta-Etxano Udalaren Diru-laguntzen emakida arautzen duen Ordenantza, 2008ko abuztuaren 6ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zena,

EBATZI DU honako hau onartzea:

**AMETX - ERAKUNDE AUTONOMOAREN KULTURA SAILAREN
DIRU-LAGUNTZAK NORGEHIAGOKA ARAUBIDEAREN ARABERA
EMATEKO 2009KO DEIALDIA.**

LEHENENGOA: DIRU-LAGUNTZEN XEDEA

1.- Diru-laguntza hauen xedea da elkarteek edo bestelako erakundeek antolatutako kultura jarduerak finantzatzea, udalerriko jaiei edo erakundearen urteko zereginari lotutako ekintzak ordainduz alegia, erakunde eskatzailearen ohiko jardunbide-programa osatzen duten jarduerak eta bestelako kultura proiektuak, batez ere berriak direnak, finantzatuz.

2.- Diru-laguntzak emateko, norgehiagoka prozedura erabiliko da, ordenantza honetan finkatutako parametroak eta titulu honetan ezarritako berezitasunak gogoan izanda. Era berean, diru-laguntza hauek bateragarriak dira onuradunek eska dezaketean beste batzuekin, horien ezaugarriak berdinak nahiz antzekoak direnean.

BIGARRENA: ONURADUNAK.

1.- Onuradun izango dira aurreko puntuan deskribatu diren jarduerak sustatu edo gauzatu dituzten pertsona fisiko zein juridikoak, nortasun juridikorik gabekoak barne.

2. Amorebieta-Etxanoko Udalaren Diru-laguntzen emakida arautzen duen Ordenantza honetan ezarritako betekizunez gain, onuradunek hurrengoak ere bete behar dituzte:

- Legearen arabera eraturik dauden eta irabazizko asmorik ez duten erakunde edo elkarteak izatea, dagokien erregistroan erregistraturik egotea eta jarduerak udalerrian burutzea.

- Noizbehinkako izaera izanik, partikular baten edo talde baten ordezkari diharduten pertsona fisikoak izatea, irabazizko asmorik gabekoak eta udalerrian erroldatuak.

**HIRUGARRENA: ESKABIDEAK AURKEZTEKO LEKUA ETA EPEA, ETA
ESKABIDEAREKIN BATERA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTU
ETA INFORMAZIOAK (I. ERANSKINA)**

Eskabidea, Kultura eta Euskarako AMETX Erakunde Autonomoko presidenteari zuzenduta, Zelaieta Zentroko (Zelaieta Parkea z/g) Sarrera-erregistroan aurkeztuko da. Herri Administrazioen eta Administrazio Prozedura Erkidearen araubide juridikoari buruzko 30/1992 Legearen 38. artikuluan ezarritako bideetako edozein erabilita ere aurkez daiteke. Horretarako, hamabost (15) eguneko epea izango da, deialdia argitaratzen den egunean zenbatzen hasita. Eskabidearekin batera dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

- Eskatzailearen identifikazioa eta, hala denean, erakundearen ordezkari-tza egiaztatzeko agiriak. Pertsona fisikoek NANaren kopia aurkeztu behar dute. Pertsona juridikoek, berriz, ondokoa ekarriko dute:
 - a) IFK.
 - b) Organoen eta ordezkarien izendapenaren erabakia, dagokien erregistro ofizialean behar bezala inskribatuta, halakorik izanez gero.
 - c) Estatutuak, hauek ere inskribatuta.
 - d) Ordezkariaren NAN, diru-laguntzarekin lotutako kontuetan identifikatu ahal izateko.
- Eskatzaileak egindako zinpeko adierazpena, onuradun izateko bateraezintasunik ez duela azalduz, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 eta 13.3. artikuluek ezarritakoaren arabera. (II. ERANSKINA)
- Diru-laguntza jasotzeko proiektua deskribatzen duen memoria-txostena.
- Diruz laguntzekoa den ekintza justifikatzeko dokumentazioa. Kopururen bat alde-z aurretik ordaintzeko eskatuz gero, jarduketaren aurrekontu xehatua eta banakatua, gastuaren kontzeptua eta finantzaketa-iturria aurkeztuko dira. (III. ERANSKINA)
- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak bete direla egiaztatzen duten agiriak, Amorebieta-Etxanoko Udalaren Diru-laguntzen emakida arautzen duen Ordenantzaren 7. artikulua-ren e) letran ezarritakoarekin bat etorri-z. Erakunde Autonomoak berak egiaztatuko du onuraduna egunean dagoela Amorebieta-Etxanoko Udal Ogasunarekin. (IV. ERANSKINA).
- Hala denean, onuradunak helburu berbererako beste edozein Administrazio-tatik, erakunde publikoetatik nahiz pribatuetatik, naziokoetatik edo nazioartekoetatik, lortu dituen beste diru-laguntzen edo laguntzen aitorpena (V. ERANSKINA).
- Diruz laguntzekoa den gastuaren zenbatekoa 12.000 eurotik gorakoa denean, ekipamendurako ondasunen hornidurarako edo kontsulta edo aholkularitza teknikorako enpresen zerbitzugintzarako, kontratuaren xede berbererako hiru hornitzailek egindako eskaintzak aurkeztu beharko ditu gutxienez onuradunak. Eskaintza horiek eskabidean agerraraziko dira, eta eragingarritasun- nahiz ekonomia-irizpideak aintzat hartuta aukeratuko da beraien arteko bat, ekonomiaren aldetik abantaila gehien duen eskaintza aukeratu ezean berariazko memoria-txostenaren bidezko justifikazioa eginez.

LAUGARRENA: BALORAZIORAKO IRIZPIDEAK

Hauexek dira baloraziorako irizpideak:

- a) Proposamena egin duen pertsonak edo erakundeak Amorebieta-Etxano udalerrian duen pisua edo sustraitzea (15 puntu gehienez).
- b) Eskatzaileak gauzatutako jarduerari urteetan ekitea (15 puntu gehienez).

- c) Beste erakunde batzuen finantzaketa-bideak erabiltzeko zailtasuna (5 puntu gehienez).
- d) Eskatzaileak bere dituen baliabide ekonomikoak (5 puntu gehienez).
- e) Jardueraren kalitatea eta interesa kulturaren ikuspuntutik (10 puntu gehienez).
- f) Programak duen eragina eta udalerraren kultura garapenari egiten dion ekarpena (10 puntu gehienez).
- g) Jardueraren edo proiektuaren berritasuna eta egokitasuna (5 puntu gehienez).
- h) Proiektua bat etortzea eskabidean zehaztutako helburuekin. (5 puntu gehienez)
- i) Bideragarritasun tekniko eta ekonomikoa (5 puntu gehienez).
- j) Programaren errentagarritasuna, hezkuntzari, kulturari, gizarteari eta abarri dagokienez. (5 puntu gehienez).
- k) Erakunde eskatzailearen esfortzua, antolakuntza, egitura eta ekonomiaren alorretan (5 puntu gehienez).
- l) Jarduera gauzatzeko ekitaldi-kopurua (5 puntu gehienez).
- m) Jardueraren eragina, gizonezkoen eta emakumezkoen arteko berdintasunaren sustapenean (5 puntu gehienez)
- n) Jarduera bi hizkuntza ofizialak erabilia gauzatzea (5 puntu gehienez)

Diru-laguntzaren gehienezko zenbatekoa aurkeztutako guztirako aurrekontuaren % 100 izango da. Aurrekontua ikuskatu egingo da, eta beharrezko irizten zaien egokitzapenak egingo zaizkio.

Portzentaje horri balorazioan lortutako puntuak egokituko zaizkio, diru-laguntzaren azken zenbatekoa kalkulatzeko xedez.

Irizpideak balioetsi ondoren lortutako portzentajea ezarrita, aurkezten diren eskaeren kopuruak erabakiko du azkenean zein den diru-laguntza bakoitzaren zenbatekoa.

Diru-laguntza eskuratzeko, 20 puntu eduki beharko dira gutxienez.

BOSGARRENA: IZAPIDEAK ETA EBAZPENA

- a) Berariazko oinarri hauetara bilduta dauden laguntzak emango dituen instrukzio-organoa AMETX Erakunde Autonomoaren kultura teknikaria izango da.
- b) **Ebazpenerako proposamena egiteko** eskumena duen organoa Diru-laguntzen Emakida Batzordea izango da. Honako hauek dira organo hori osatuko dutenak:
 - Presidentea: AMETX Erakunde Autonomoaren presidentea.
 - 2 batzordekide: Saileko teknikaria eta kontu-hartzailea edo berak eskuordetzen duen pertsona
 - Idazkaria: Saileko laguntzailea edo administraria
- c) **Ebazteko eskumena duen organoa AMETX Erakunde Autonomoaren presidentea izango da.** Ebazpenerako eta jakinarazpenerako gehienezko epea lau hilabetekoa da. Deialdia argitaratzen denean zenbatzen hasita zenbatuko da epea, deialdiak berak ondorenak geroagoko data baterako atzeratu ezean.

Diru-laguntza emateko ebazpenean honakoak aipatu behar dira:

- a) Diru-laguntza jasoko duten eskatzaileak zein diren.
- b) Beste eskabideen gaitzespen arrazoitua.
- c) Diru-laguntza emateko erabili den xedapena.

- d) Ordainketaren zenbatekoa, modua eta epeak.
- e) Jar daitezkeen errekurtsioak, zein organori aurkeztu behar zaizkion eta epeak.

Edozein kasutan ere, diru-laguntza emateko kontuan hartutako baldintzak aldatu badira, edota beste erakunde publiko zein pribatu batzuek aldi berean emandako laguntzen edo diru-laguntzen ondorioz gehiegizko finantzaketa gertatu bada, diru-laguntza emateko ebazpena aldatu ahal izango da eta, beharrezkoa denetan, jasotako diru-laguntza itzuli beharko da.

Ebazpena emandakoan, onuradunak eska dezake horren edukia aldatzea, ondoko kasuetan:

- 1.- Onuradun izateko beharrezkoak diren betekizunak modu nabarian aldatu direnean.
- 2.- Diru-laguntza emateko inguruabar objektiboak aldatu direnean.
- 3.- Onuradunek diru-laguntza jasotzeko aurkeztu dituzten proiektuak aldatu direnean.

Jarduera gauzatzeko epea amaitu baino lehen aurkeztu beharko da ebazpena aldatzeko eskabidea.

Diru-laguntza emateaz batera amaituko da administrazio bidea.

Gehienezko epea interesdunei ebazpena legez jakinarazi gabe iraungiz gero, emakidaren eskabidea administrazioaren isiltasunaren bitartez gaitzetsizat hartu beharko da.

SEIGARRENA: JAKINARAZPENA ETA ARGITARATZEA.

Ebazpena eman eta gero, onuradunei jakinaraziko zaie, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 58. artikulua eta ondorengoek ezarritakoarekin bat etorriz.

AMETX Erakunde Autonomoak diru-laguntzak ematen dituenean, beharrezkoa da emakida Erakunde Autonomoaren iragarki-oholean ikusgai jartzea eta ebazpenaren laburpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea, eduki osoa non ikus daitezkeen adierazita. Erakundearen web-orrian ere argitaratuko da ebazpena.

ZAZPIGARRENA: DIRU-LAGUNTZEN ZENBATEKOA

Diru-laguntza hauek Erakunde Autonomoaren aurrekontuko hurrengo partidetan eskuragarri dauden kredituei egotziko zaizkie: 4511-48000 partidatik **2.000** €-ko kopurua gehien jota; 4511-48100 partidatik, **25.482** €-ko kopurua gehien jota; 4516-48000 partidatik, **5.000** €-ko kopurua gehien jota eta 4516-48100 partidatik, **25.000** €-ko kopurua gehien jota.

Laguntza-eskarien zenbatekoa hasieran aurreikusitako gastua baino txikiagoak direlako, arinagoko aurrekontu-kredituetan haborokinak izatera, soberako kredituen transferentziak egitea erabaki ahalko da eta gehienezko beste zenbatekoak areagotu, beste deialdi bat egin beharrik izan gabe. Era berean, erabilgarri dauden aurrekontu-kredituen zenbatekoa handiagotu ahalko da kreditua bideratuz, handiagotuz edo erantsiz. Kreditua erabili ahal izatearen adierazpenak baldintzatuta egongo da horren



eraginkortasuna eta, beharrezkoa denean, aurrekontu-aldaketa onartu beharko da lehenbizi, diru-laguntzaren emakida ebatzi aurretik.

Arautegi honetan aintzat hartu diren diru-laguntzak bateragarriak dira erakunde publikoek nahiz pribatuek xede berbererako ematen duten beste edozeinekin. Halatan ere, ezin daiteke gainfinantzaketarik izan, eta horrelakoetan, murriztu egingo da ematekoa den diru-laguntza, ekintzaren guztirako kostuari egokitzeraino. Baldin eta geroago ekintzaren gainfinantzaketa gertatzen bada eta erakunde onuradunak gainfinantzaketaren ziozko itzultze bat baino gehiago egin beharra badauka, Ametx erakunde autonomoari, egindako guztirako ekarpenari dagokion proportziozko zatia itzuliko dio.

ZORTZIGARRENA: DIRU-LAGUNTZAREN ORDAINKETA

Diru-laguntzaren xede den ekintza egin dela justifikatu aurretik ordaindu ahalko da diru-laguntza. Horretarako, beharrezkoa da onuradunak aurrerakina eskatzea, garatuko dituen ekintza guztien aurrekontu xehatua aurkeztuta. Ez da inolako bermerik eskatuko.

Diru-laguntza emateko erabakia hartuta, gehien jota bi hilabetekoa izango den epean sartuko da zenbatekoa onuradunak xede horretarako eskaera-orrian adierazitako kontu-zenbakian.

Honelako kasuetan diru-laguntza ez da ordainduko:

- a) Onuraduna zerga-zorren eta Gizarte Segurantzarekiko zorren ordainketak egunean ez dituenean.
- b) Onuraduna, itzultzea bidezkoa dela ebatzi izanaren ziozko zorduna denean.
- c) Onuradunak arinagoko beste diru-laguntzaren bat epe barruan justifikatu ez duenean.

BEDERATZIGARRENA: DIRULAGUNTZAREN JUSTIFIKAZIOA

Emandako diru-laguntza justifikatzeko, ondoren aipatzen den dokumentazioa aurkeztu beharko du erakunde onuradunak 2010eko urtarrilaren 20a bitartean.

Gastua egiaztatzeko kontua, gastuen egiaztagiria ekarrita.

Onuradunak honako egiaztagiria ekarri behar ditu:

1. Diru-laguntza emateko baldintzak bete direla egiaztatzen duen memoria-txostena, egin diren jarduerak eta erdietsi diren emaitzak aipatuz.
2. Diruz lagunduta izan den jarduera osoak eragindako gastu eta inbertsio guztien zerrenda sailkatua, honakoak zehaztuta: hartzekoduna eta agiria, zenbatekoa, jaulkipen-data eta, hala balegokio, ordainketa-data. Diru-laguntza aurrekontu baten arabera eman denean, gertatu diren aldaketak adieraziko dira.
3. Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten bestelako diru-sarreraren edo diru-laguntzen zerrenda xehatua, horien zenbatekoa eta jatorria adierazita.

4. DLOren 31.3. artikuluaen aginduz, onuradunak eskatu behar izan dituen hiru aurrekontuak.
5. Hala denean, itzultzearen ordainketa-agiria, erabili gabeko gaindikinak daudenean, eta horiek eragindako interesak.
6. Merkataritzako trafiko juridikoan froga-balioa edo administrazio-eragingarritasuna duten eta 2 atalean aipatzen diren zerrendara bilduta dauden fakturak edota agiriak. Agiriok jatorrizkoak izan beharko dute edo, bestela, kopia konpultsatuak, eta diru-laguntzaren onuradunaren izenean legez egindakoak izango dira. Gauzatutako ekintzekin lotuta egongo dira, AMETX erakunde autonomoak emandako diru-laguntzaren zenbatekoa justifikatzeraino. Emandako diru-laguntzaren gainetik, eta diruz lagundutako proiektuaren guztirako zenbatekora bitartean, fakturen fotokopiak aurkeztuko dira.

HAMARGARRENA: ONURADUNEN BETEBEHARRAK

Legeria orokorrak edo berariazko deialdi bakoitzak ezarritakoez gain, AMETX Erakunde Autonomoak emandako diru-laguntzen onuradun diren pertsonak eta erakundeek hurrengo betebeharrak dituzte:

- a) Diru-laguntza ekarri duen helburua bete, proiektua betearazi, jarduera gauzatu edota jokabidea burutzea, halakorik izanez gero, erakunde autonomoak ezartzen dituen berezitasunei men eginez.
- b) Hala denean, diru-laguntza eman duen organo edo erakunde laguntzaileari egiaztatzea betekizun eta baldintza guztiak bete direla, eta diru-laguntza jasotzea ekarri duen helburua ere bete dela; hori egin ezean, AMETX Erakunde Autonomoak ez dio diru-laguntza gehiago emango erakunde horri.
- c) Diru-laguntza eman duen organoak edo erakunde laguntzaileak zerbait aztertu nahi duenean, azterketa hori ahalbidetzea, baita nazioko zein Europar elkarteko kontrol organo eskudunek egiten dituzten azterketak eta finantza-kontrolak ere; beraz, halako jardunaren ondorioz eskatzen zaien informazioa eman beharko dute.
- d) Laguntzapeko jarduera finantzatzeko beste diru-laguntza, laguntza, sarrera edo baliabideren bat jaso denean, horren berri ematea diru-laguntza eman duen organoari edo erakunde laguntzaileari. Berri-emate hori egin beharko da beste diru-laguntza jaso dela jakin bezain pronto eta, betiere, jasotako fondoei emandako erabilera justifikatu baino lehen.
- e) Ematearen inguruko ebazpen-proposamena egin baino lehen, zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak gauzatu direla egiaztatzea, arautegiaren bidez zehaztuta dagoen bezala, eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen hamazortzigarren xedapen gehigarriak ezarritakoa alde batera utzi gabe. Halaber, onuradun bakoitzak 3.000,00 € baino gutxiago jasotzen duen diru-laguntzen kasuan, ziurtagirien ordean, onuradunak adierazpen arduratsua egin dezake atal horiek egiaztatzeko; ezin izango da halakorik egin, ordea, ordenantzaren II. tituluak aipatutako kasu zehatzetan. Erakundeak berak egiaztatutako du onuradunak Amorebieta-Etxanoko Udal Ogasunari zor dion

- guztia ordaindu diola. Zerga-betebeharrak bete ez badira, hamar eguneko epean bete beharko dira, oinarri arautzaileek beste epe bat xedatzen dutenean izan ezik.
- f) Kontabilitate-liburuak, diligentziadun erregistroak eta gainerako agiriak izateaz gain, horien kontu-ikuskapena egitea, merkataritzako legeriak eta onuradunarek erabili beharreko sektoreko legeriak ezarritakoaren arabera; halaber, diru-laguntzak arautzeko oinarriek agindutako kontabilitate-orri nahiz erregistro bereziak ere edukitzea, egiaztatze- eta kontrol-ahalmenak behar bezala gauzatu ahal izateko.
 - g) Jasotako fondoan erabilera justifikatzen duten agiriak gordetzea, baita agiri elektronikoak ere, horien gaineko egiaztatze- eta kontrol-jarduna gauzatu ahal delako.
 - h) Publizitate egokia ematea diru-laguntzapeko xedea modu publikoan finantzatu izanari, Erakunde Autonomoak eskaintako babes aipatuz.
 - i) Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 37. artikulura bildutako kasuetan, jasotako fondoak itzultzea.
 - j) Diru-laguntza onartzea, emateko baldintzen ondoretarako. Besterik zehaztu ezean, emakida jakinarazten denean zenbatzen hasi eta, gehien jota, hamabost eguneko epean emate horri beren beregi uko egiten ez bazaio, onartutzat hartuko da.
 - k) Garatu beharreko jarduera motari dagokion indarreko arautegi berezia betetzea.
 - l) Erakunde Autonomoarekin elkarlanean aritzea, hala eskatzen denean, diru-laguntzapeko xedeari buruzko informazioa emanda.
 - m) Erakunde Autonomoak erabakitako ikuskatze-jarduna onartzea.
 - n) Diru-laguntza behar bezala erabiltzen dela eta laguntzapeko jarduera modu egokian gauzaten dela bermatzeko, AMETX Erakunde Autonomoak erabakitzen dituen beste betebeharrak,.

Amorebieta-Etxanon, 2009ko apirilaren 17an

Izp.: Sara Chamizo Diez